



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, APIRILAREN 13KO 15/2010 FORU DEKRETUA, ARABAKO FORU ALDUNDIAN ZERGA ARLOKO ZENBAIT IZAPIDE ETA JARDUN EGITEKO BORONDATEZKO ORDEZKARITZA ARAUTU ETA BORONDATEZKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA ERATZEN DUENA, ALDATZEKO FORU DEKREUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako aurreproiektua/proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Arauaren helburuak,
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa emateko borondatezko ordezkariaren maila berria sortu behar duen etorkizuneko xedapenen eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2017ko XXXXren XX(e)ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Balio erantsiaren gaineko zergan berehalako informazio hornidura ezartzeko foru dekretua. Apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretua, Arabako Foru Ogasunean zerga arloko zenbait izapide eta jardun egiteko borondatezko ordezkari arautu eta Borondatezko Ordezkarien Erregistroa eratzen duena.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa emateko borondatezko ordezkartzaren maila berria sortu nahi da, gaur egun dagoenarekin ez baita nahikoa bete ahal izateko balio erantsiaren gaineko zergan berehalako informazio hornidura ezartzeak eskatzen dituen beharrizanak.
HURA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Nahi duena Arabako Foru Ogasunarekin jarri ahal da harremanetan, fakturazio erregistroen hornidura elektronikorako ordezkari baten bidez.
HELBURUAK	Egokitzea borondatezko ordezkartza beharrizan berriei.
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	Beste aukera da ez sortzea ordezkartza maila berririk.